



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko maiatzaren 4a

61. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena egin du, 2014ko ekitaldikoa.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**


- |  |   |
|--|---|
| <p><b>I.</b> Sarrera (3. or.).</p> <p><b>II.</b> Helburua (5. or.).</p> <p><b>III.</b> Norainokoa (6. or.).</p> <p><b>IV.</b> 2014ko kontu orokorrari buruzko iritzia (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. Udalaren 2013ko ekitaldiko kontuorokorra (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.3. Udalaren 2014ko egoera ekonomiko-finantzarioa (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (12. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">IV.5. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetze-maila (13. or.).</p> <p><b>V.</b> Udalaren 2014ko kontu orokorraren laburpena (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1. 2014ko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2. 2014ko aurrekontu bateratuaren emaitza (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2014ko abenduaren 31n (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.4. 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2014an (17. or.).</p> <p><b>VI.</b> Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (18. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1. Alderdi orokorrak (18. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2. Langileak (18. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (20. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (21. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.5. Inbertsioak (21 or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (22. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.7. Hirigintza (23. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.8. Burlatako Udalaren Hirigintza Sozieta-tea, S.L (24. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.9. Ripaberri Desarrollo Urbano SL. (Desegiten ari da) (26. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.10. Erripagaña Desarrollo Urbano, S.L (26. or.).</p> <p>Eranskina. 2014ko kontu orokorraren oroitidazkia</p> <p>(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean: <a href="http://www.cfnavarra.es/camara.comptos">www.cfnavarra.es/camara.comptos</a>).</p> |
|--|---|

## I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Burlatako Udalaren eta haren menpeko enteen 2014ko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Burlatako udalerrriak 2,12 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 2014ko urtarrilaren 1ean, 18.237 biztanle dauzka.

Udalaren eta haren menpeko erakundeen osaera ondoko grafikoan agertzen da:



2014ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

• Sektorre publiko administratiboa, Udalak berak eta haren erakunde autonomoek (Kirol eta Kultur patronatuak) osatzen dutena. Honakoak dira haren 2014ko datu nagusiak:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2014-12-31n
Udala	13.256.094	13.575.928	180
Kirol Patronatua	1.999.621	2.031.467	26
Kultur Patronatua	879.296	835.887	5
Bateratzearen doitzeak	-1.302.479	-1.302.479	
<b>Guztira</b>	<b>14.832.533</b>	<b>15.140.802</b>	<b>211</b>

Udalak 2014an bere erakunde autonomoei egindako ekarpena, guztira, honakoa izan da: 601.887 euro Kirol Patronatuari eta 700.592 euro Kultura Patronatuari.

• Enpresen Sektorre Publikoa. 2005ean, Udalak Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea (“Sociedad Urbanística Municipal de Burlada SL”) eratu zuen. Kapital guztia Udalarena da. Sozietate horrek ehuneko 51ko parte-hartzea du bitariko sozietate hauetan:

- a. Ripaberri Desarrollo Urbano SL, 2008an eratu. (Desegiten ari da).
- b. Erripagaña Desarrollo Urbano SL, 2010ean eratu.

Bi sozietate horietan, bazkide pribatua bera da. 2014an, hiru sozietate horiek honako datu ekonomiko hauek izan dituzte (emaitzen kontua):

Enpresa publikoa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Langileak, 2014-12-31n
Sociedad Urbanística Municipal Burlada S.L	342.769	-456.233	-113.464	1
Ripaberri Desarrollo Urbano, SL	431.386	-571.880	-140.494	-
Ripaberri Desarrollo Urbano, SL	2.549.307	2.240.107	309.200	-

Sozietateek udal bulegoetan dute beren egoitza soziala.

Udala, gainera, honako hauetako kidea da:

a) Iruñerriko Mankomunitatea: haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua eta eskualdeko hiri garraioari dagozkion zerbitzuak eta taxi zerbitzuak, bai eta ibai-parkearen kudeaketa ere.

b) Hilarión Eslava Musika Eskolako Partzuergoa, Burlatako eta Atarrabiako udalek 2010eko irailean sortua.

Zerbitzu horiek guztiek ondoko taulan adierazten diren gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Gastuak (2014)
Eskualdeko garraio publikoa	321.544
Ibai parkea	52.692
Musika Partzuergoa	266.676

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Zerbitzua	Udala	Merkataritza sozietate osoa	Mankomunitatea Partzuergoa	Zerbitzu-kontratuak	Errenta-mendua	Merkataritza-sozietate mistoa
Zerbitzu administratibo orokorrak	X					
Oinarritzko gizarte zerbitzua	X					
Etxez etxeko laguntza zerbitzua	X					
0-3 urteko haur-eskolak				X		
Hirigintza	X	X				X
Lorategiak	X					
Garraio publikoa			X			
Uraren ziklo integrala			X			
Hiri-hondakinen kudeaketa			X			
Liburutegia-ludoteka	X					
Musika eskola			X			
Kaleen eta Bideen mantentze-lanak	X					
Kirolak	X					
Kirol jardueren kudeaketa	X			X		
Udal-kiroldegia	X				X	
Gizarte enplegu babestua	X					
Diru-bilketa exekutiboa				X		
Familien arretarako zentroa	X					
Familien arretarako zentroaren laguntza juridikoa				X		

Toki entitateari 2014ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

2014ko ekitaldiko aurrekontua 2011ko ekitaldiko aurrekontu luzatua da. Aurrekontu horren 2014rako luzapena alkatetzaren 2013ko abenduaren 31ko alkatetza-dekretuaren bitartez onetsi zen. 2014ko kontuak 2015eko urriaren 1ean onetsi zituen Udalaren Osoko Bilkurak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2014ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo; sozietate publikoei buruzko iruzkin batzuk ere biltzen ditu.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2014ko ekitaldiko kontuei buruz egindako oroitidazkiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Burlatako Udaleko eta bere erakunde autonomoetako eta udal enpresetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzagatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Burlatako Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia/ondorioa agertzea:

- Ea Burlatako Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Udalak 2014an izandako finantza-jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.
- Udalaren finantza-egoera 2014ko abenduaren 31n.
- 2014ko ekitaldirako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetzea, eskuragarri dagoen informazioari jarraituz.
- Zenbateraino betetzen diren Ganbera honek 2013ko ekitaldiari buruzko txostenean emandako aholkuak.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzen ditugun diren aholkuak, Udalak eta haren menpeko enteez ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

### III. NORAINOKOA

Burlatako Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Erakundearen beraren eta haren erakunde autonomoen kontua: Aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaiza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Udala akzio guztien jabe den udal sozietatearen urteko kontuak.

- Kontu orokorraren eranskinak: Udalaren eta haren menpeko erakundeen egoera-orri bateratuak, oroitidazkia, zorraren egoera-orria, kontu-hartzaitzaren txostena eta sozietate mistoen kontuak.

Lana Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauetara jarraituz gauzatu da; zehazki, honakoak aplikatu dira: "Fiskalizazio edo auditoria finantzarioaren oinarritzko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 200 araua eta "Betetzeari buruzko fiskalizazio- edo auditoria-printzipio nagusiak" izeneko ISSAI-ES 400 araua. Inguruabarren eta azterlanaren helburuen arabera, beharrezkotzat jo ditugun hautaprobea edo prozedura tekniko guztiak aplikatu ditugu; prozedura horien artean laginen teknika edo kontusail edo eragiketa jakin hautatuak aztertzeko teknika erabili dira.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarritzko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolerako alderdi nabarmenenak.

Udalaren Hirigintza Sozietatearen eta haren partaidetza duten sozietate mistoen (Ripaberri Desarrollo Urbano S.L. eta Erripagaña Desarrollo Urbano S.L.) 2014ko urteko kontuek badute kanpoko auditoreek egindako finantzen auditoria-txosten bat. Auditore horien iritzi profesionala aldekoa izan da, nahiz eta Erripagaña Desarrollo Urbano SLren kasuan auditoreak salbuespen bat jaso duen, izakinen balorazioarekin lotutakoa. Sozietate horri buruzko VI.10 puntuan garatzen da. Beste bi sozietateak direla-eta salbuespenik gabeko aldeko txostena egin da.

Udal sozietateen 2014ko urteko kontuei dagokienez, egindako lana, funtsean, izan da haiek direla eta egindako kanpo-auditoria analizatzea. Sozietate horiek direla eta, aurreikusita dago Kontuen Ganberak txosten bat egitea 2016eko lan-planean.

#### **IV. 2014ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA**

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Burlatako Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

##### *UDALAREN ERANTZUKIZUNA*

Alkatea da kontu orokorrak aurkezteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udalak, gainera, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela indarreko araudiarekin.

##### *NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA*

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezatasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezatasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezatasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezatasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritzia eratortzen da, salbuespen batzuk ere badituena.

#### **IV.1. UDALAREN 2013ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA**

##### *IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN*

Burlatako Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta haren eguneratzea oraindik egin gabe dago; horregatik, ezinezkoa izan da ibilgetu finkatuaren kontabilitate-saldoa arrazoizkoa den egiaztatzea; saldo hori, 2014ko abenduaren 31n, 93 milioi eurokoa zen.

##### *IRITZIA*

Arestian aipatutako salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko behar den informazio guztia biltzen du, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

#### IV.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Egindako lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2014ko ekitaldian Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkotasun printzipioari jarraituz egin dela.

#### IV.3. UDALAREN 2014ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 15,8 milioi euroko gastuak eta 16,8 milioi euroko diru-sarrerak dauzka; zenbateko horiei 2,1 milioi euro gehitu zaizkie aurrekontu-aldaketen bitartez, eta horrenbestez, behin betiko aurrekontu bateratua 17,9 milioi eurokoa da gastuetarako eta 18,9 milioi eurokoa diru-sarrerarako; egin diren aldaketek inbertsio errealean kapituluan (VI. kapitulua) dute batez ere eragina, gastuei dagokienez, eta finantza-aktiboenean (VIII. kapitulua), berriz, diru-sarrerei dagokienez.

Aitortutako betebeharrak 14,8 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 83ko betetze-maila izan dute. Inbertsioen betetze-maila ehuneko 24koa izan da.

Aitortutako eskubideek 15,1 milioi euro egiten dute, eta betetze-maila ehuneko 80koa izan da. Zuzeneko zergen kasuan, betetzearen portzentajea ehuneko 130ekoa da; inbertsioen besterentzearen kapituluaren betetzea, aldiz, ia deuseza izan da: 1,1 milioi euro zeuzkan.

Beren izaerari dagokienez, gastu arruntek eta inbertsioek ehuneko 95 eta ehuneko bi egiten dute 2014an, hurrenez hurren, gastuen guztizkoan; 2013an, berriz, ehuneko 87 eta ehuneko 10 izan ziren, hurrenez hurren.

Diru-sarrera arruntek, 2014an, diru-sarrera guztien ehuneko 93 egiten dute; 2013an, berriz, ehuneko 96 izan ziren. Jasotako transferentzietatik heldu diren diru-sarrerak diru-sarrera guztien ehuneko 43 dira 2014an; 2013an, berriz, ehuneko 42 izan ziren.

Inbertsio errealean besterentzetik heldutako diru-sarrerak diru-sarrera guztien ehuneko 0,01 dira 2014an; 2013an, berriz, ehuneko sei izan ziren.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantzabidea	Ehunekoa
Langileak	55	Tributu bidezko diru-sarrerak	53
Bestelako gastu arruntak	40	Transferentziak	44
Inbertsioak	3	Ondare bidezko diru-sarrerak	3
Finantza-zama	2	Zorduntzea	0
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>Guztira</b>	<b>100</b>



Hona Udalaren 2014rako aurrekontuaren betetzeari eta betetze horrek 2013tik izan duen bila-kaerari buruzko datu ekonomikoak:

	2014	2013	Aldea (%) 2014/2013
Aitortutako betebeharrak, guztira	14.832.533	15.904.220	-6,74
Betebehar ez-finantzarioak, guztira (1. kapitulutik 7.era)	14.468.507	15.524.567	-6,80
Likidatutako eskubideak, guztira	15.140.802	15.213.879	-0,48
Eskubide ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	15.128.304	15.202.244	-0,49
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	14.083.451	13.873.876	1,51
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	14.067.841	13.848.307	1,59
Inbertsioetan egindako gastuak (6. eta 7. kapituluak)	385.056	1.650.691	-76,67
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	364.026	379.653	-4,12
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	14.817.852	14.116.028	4,97
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	7.940.714	7.015.817	13,18
Finantza-eragiketen diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	12.499	11.635	7,42
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	% 42,04	% 41,04	2,44
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak	% 56,38	% 50,57	11,50
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	659.797	-310.687	-
Aurrekontu-emaizta doitua	475.043	-130.711	-
Aurrezki gordina	750.010	267.722	-
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	371.136	396.382	-6,37
Aurrezki garbia	378.874	-128.659	-
Zorpetze maila (%)	% 2,50	% 2,81	-10,87
Zorpetze muga (%)	% 5,06	% 1,90	166,40
Zorpetze-ahalmena (%)	% 2,56	% -0,91	-
Diruzaintza-gerakina, guztira	5.982.314	6.193.158	-3,40
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-3.083.267	-3.411.353	9,62
Zor bizia	595.987	951.514	-37,36
Diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia (%)	% 4,02	% 6,74	-40,33
Zor bizia biztanleko	32,68 €	52,43 €	-37,67
Zor bizia / Aurrezki gordina	0,79	3,55	-77,74

Udalak aurreko ekitaldian baino ehuneko 6,7 gutxiago gastatu du eta 2013ko diru-sarrera ia berdina izan ditu. Gastuaren beherakadaren arrazoia inbertsioen murrizketa izan da (ehuneko 77ko beheratzea); diru-sarreren egonkortasuna, berriz, zergen bidezko diru-sarreren igoerari zor zaio (ehuneko 13, 2013koekin alderatuta), eta konpentsatu da kapitaleko diru-sarrerak ehuneko 71 behera egitearekin (310.452 euro 2014an; 2013an, berriz, 1.086.216 izan ziren).

Gastu arruntetan ehuneko 1,5eko igoera izan da, eta diru-sarrera arruntak, berriz, ehuneko 5 handitu dira.

Bestalde, diru-sarrera arrunten igoeraren azalpena zuzeneko zergen igoera da.

2014ko aurrekontu saldo ez-finantzarioa 659.797 eurokoa da, eta horrek adierazten du diru-sarrera ez-finantzarioak nahikoak direla izaera bereko gastuak finantzatzeko.

Aurrekontu-emaizta doitua 2014an hobera egin du aurreko ekitaldikoarekin alderatuta, eta 475.043 euroko emaizta positiboa lortu da; 2013an, aldiz, 130.711 euroko galerak izan ziren.

2014an, aurrezki gordina 750.010 euro positiboa da; 2013an, aldiz, 267.722 euroko aurrezki gordina izan zen. Bestalde, aurrezki garbia 378.874 eurokoa da 2014an, eta 2013an, aldiz aurrezki garbi negatiboa (-128.659 euro) izan zen.

Zorpetze-maila ehuneko 2,5ekoa da 2014an; 2013an, berriz, ehuneko 2,81ekoa izan zen. Horrek esan nahi du ehuneko 10,87ko jaitsiera izan dela. 2014ko zorpetze-muga ehuneko 5,06koa da; 2013an, aldiz, ehuneko 1,9koa izan zen. Horrenbestez, Burlatako Udalak zorpetze berria hartzeko duen gaitasun ekonomikoa hobetu du.

2014ko diruzaintza-gerakina 5.982.314 eurokoa da, eta ehuneko 3,4 egin du behera 2013koaren aldean, orduan 6.193.158 eurokoa izan baitzen. Hala eta guztiz ere, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin negatiboa izaten jarraitzen du, 3.083.267 eurokoa; horrek ehuneko 9,62ko hobekuntza dakar 2013ko datuarekin alderatuta, orduan 3.411.353 euroko gerakin negatiboa izan baitzuen. Kontu-hartzaileak oroitidazkian dioten bezala, Udalak Nafarroako

Toki Ogasunei buruzko Foru Legean jasotako neurriak hartu behar ditu egoera orekatzeko; halakorik ez du egin, ordea, ez 2014ko ekitaldian, ez 2015ekoan ere, txosten hau emateko datara arte.

Nabarmendu beharra dago Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateak 12 milioi euroko funts berekiak dituela, eta 4,7 milioi euroko aktibo zirkulatzaila.

Epe luzeko zorrak ehuneko 37,36 egin du behera 2013koarekin alderatuta; izan ere 2014an 595.987 eurokoa izan zen eta 2013an, berriz, 951.514 eurokoa. Biztanle bakoitzeko 2014ko zorra 33 eurokoa izan zen (2013an, ehuneko 52koa), eta entitatearen 2014ko diru-sarrera arrunten guttizkoaren ehuneko 4,02 da (2013an, ehuneko 6,74 izan zen). Bada, ehuneko horiek gaur egun zorpetze berria hartzea mugatzen duen diru-sarrera arrunten ehuneko 110eko lege-mugaren azpitik daude.

Honakoa izan da aurrekontuaren betetzea 2006ko ekitalditik hasi eta 2014ra arte:

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Kap. Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
1 Langile-gastuak	8.516.832	7.974.075	8.305.688	9.006.666	8.611.368	8.746.220	7.951.981	7.925.694	8.144.538
2 Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	3.402.000	3.473.100	3.765.477	3.612.309	4.022.224	4.383.664	4.456.130	4.589.822	4.482.148
3 Finantza-gastuak	219.485	260.603	290.602	207.800	143.799	148.509	47.759	25.569	15.610
4 Transferentzia arruntak	674.995	994.804	1.031.494	1.408.323	1.189.605	1.341.013	1.324.497	1.332.791	1.441.155
6 Inbertsio errealak	3.530.924	2.939.884	2.155.135	4.416.599	2.963.964	2.734.907	547.957	1.650.691	371.762
7 Kapital-transferentziak	0	0	96.183	12.658	0	0	0	0	13.294
8 Finantza-aktiboak	13.300	11.800	7.000	27.700	13.361	12.800	21.799	8.840	8.500
9 Finantza-pasiboak	1.083.831	853.932	830.793	833.727	859.834	873.261	537.830	370.813	355.526
<b>Guztira</b>	<b>17.441.367</b>	<b>16.508.198</b>	<b>16.482.372</b>	<b>19.525.782</b>	<b>17.804.155</b>	<b>18.240.374</b>	<b>14.887.953</b>	<b>15.904.220</b>	<b>14.832.533</b>

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Kap. Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
1 Zuzeneko zergak	3.113.766	3.253.558	3.192.056	3.674.536	3.630.218	3.583.679	3.729.428	3.938.636	4.862.072
2 Zeharkako zergak	524.221	722.513	207.742	1.286.015	1.366.851	1.340.998	1.192.371	389.416	420.688
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerara batzuk	2.450.636	2.551.885	2.358.944	2.586.037	2.617.663	2.923.409	2.683.209	2.687.765	2.657.954
4 Transferentzia arruntak	6.548.718	6.854.656	7.157.318	6.897.153	7.483.316	7.269.520	6.601.976	6.243.496	6.364.856
5 Ondareko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua.	245.789	302.896	276.915	289.779	306.148	306.595	643.192	856.715	512.282
6 Inbertsio errealak besterentzea	0	0	523.943	757.950	0	9.515.210	151.580	964.000	1.800
7 Kapital-transferentziak	2.593.850	2.173.212	3.428.249	2.460.306	3.717.025	1.098.668	1.001.606	122.216	308.652
8 Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	11.635	12.499
9 Finantza-pasiboak	11.428	10.964	8.196	15.694	21.837	13.630	10.039	0	0
<b>Guztira</b>	<b>15.488.408</b>	<b>15.869.684</b>	<b>17.153.363</b>	<b>17.967.470</b>	<b>19.143.058</b>	<b>26.051.709</b>	<b>16.013.401</b>	<b>15.213.879</b>	<b>15.140.802</b>

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, gastuen aurrekontuak hazi egin ziren 2006an eta 2009an, eta gero behera egin dute; hartara, 2014ko gastua 2006koa baino txikiagoa da. Nabarmentzekoak dira finantza-gastuetako beherakada, ehuneko 92koa (III. kapitulua), inbertsioetakoa, ehuneko 89koa (VI. kapitulua) edo finantza-pasiboetakoa, ehuneko 67koa (IX. kapitulua). Aitzitik, 2006-2014 aldian, gora egin dute ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak (II. kapitulua) eta transferentzia arruntetakoak (IV. kapitulua).

Diru-sarrerek bestelako portaera izan dute: 2011ra arte hazi egin dira, eta urte horretan, nagusiki inbertsioen besterentzearengatik -9,5 milioi- (VI. kapitulua) 26 milioira iristen dira; 2014an, berriz, ia 2006ko maila berean daude. Nabarmentzekoa da zuzeneko zergak ehuneko 56 hazi direla (I. kapitulua); ondare bidezko diru-sarrerak (V. kapitulua), berriz, ehuneko 108 hazi dira. Aitzitik, zeharkako zergek ehuneko 19,75eko jaitsiera izan dute (II. kapitulua) eta entitateari egindako transferentziek, berriz, ehuneko 88,1ekoa.

Laburbilduz, ikuspuntu finantzario batetik, 2014an, Burlatako Udalak egoera hobetu du, 2013koarekin alderatuta, baina zenbait ziurgabetasun badauzka, baliabide arrunt berriak sortzeko gaitasunari buruz, eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin negatiboa izaten jarraitzen du. Aurrezki garbia positiboa izatera pasa bada ere, haren bilakaera hartu behar da kontuan.

Udalak egindako jardueraren bilakaera 2011ko eta 2014ko honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da; izan ere, epe horretan 1.264 mila euroko zorra amortizatu da: 2011n 1.860.156 eurokoa izatetik 2014an 595.987 eurokoa izatera pasa da, eta horrek ehuneko 68ko gutxitzea dakar.

Adierazlea	2011	2014
Zorpetze-ahalmena	% -0,44	% 2,56
Inbertsioaren indizea	% 14,99	% 2,51
Gastu arrunta biztanleko	803 €	772 €
Tributu diru-sarrerak/biztanleko	431 €	435 €
Zor bizia	1,8 milioi	0,6 milioi

Ikusten denez, 2011tik 2014ra biztanle bakoitzeko gastu arrunta jaitsi da, eta inbertsioak ere jaitsi dira. Biztanle bakoitzeko zergen bidezko diru-sarrerei, berriz, eutsi egiten zaie. 1,2 milioi euro egiten duen zorra amortizatu da, eta zorpetze-ahalmena berreskuratu da.

Epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzen jarraitzea, bere gastu arruntei eutsi eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak.

#### IV.4. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den aztertu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean eta urrian horretarako eman dituen gidez baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Kontzeptua	Kopurua
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	659.797
Doikuntzak	42.986
Finantzatzeko ahalmena	702.783

Horrenbestez, Burlatako Udalak aurrekontu-egonkortasunaren baldintzak bete ditu, eta gastuaren araua ere bete du, zeren eta kontatzekoa den gastua txikiagoa baita ezarritako muga baino (2013koa gehi ehuneko 1,5); halaber, finantza-iraunkortasunaren printzipioa bete du, zorra ezarritako mugatik beherakoa baita.

Oro har, Udalak betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak.

Fiskalizazioari buruzko gure iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen ziurgabetasuna, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak.

Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta betetzean zorrotz jokatzek eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarrizko baldintza izan behar dute.

#### IV.5. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZE-MAILA.

Ganbera honek 2013ko ekitaldiari buruz emandako txostenari dagokionez:

Honako gomendio hauek ezarri dira edo ezartzeko fasean daude:

- *Plantilla organikoa Udalaren benetako langile-premietara egokitzea.*
- *Udalarentzako diru-sarrerak ekar ditzaketen jardueren (lizentziak, tasak...) gaineko kontrol-eta ikuskatze-prozedurak ezartzea.*
- *Ripaberri Desarrollo Urbano, S.L. eta Erripagaña Desarrollo Urbano, S.L. sozietateei buruzko datuak kontu orokorrean jasotzea eranskin gisa.*
- *Burlatako Udalaren kontu orokorra dagokion datan onestea.*
- *Udal-ondasunak (jabari publikokoak, ondarezkoak eta herri-ondasunak) eskrituretan jaso eta erregistratzeko prozesua burutzea.*
- *Udalaren inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*
- *Erakunde autonomoen estatutuak osatu eta gaurkotzea eta erakunde horien autonomia-maila eta Udalaren kontrola islatzea.*

**V. UDALAREN 2014ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA**

Ondoren, 2014ko kontabilitatearen egoera-orri bateratu garrantzitsuenak azaltzen ditugu.

**V.1. 2014ko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA**

## Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetako (%)	Kobrantsak	Kobratzeko dagoena	Kobratzeko dagoena (%)
1. Zuzeneko zergak	3.737.400	0	3.737.400	4.862.072	130,09	4.237.553	624.520	12,84
2. Zeharkako zergak	1.400.000	0	1.400.000	420.688	30,05	413.948	6.740	1,60
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.864.128	0	2.864.128	2.657.954	92,80	2.434.576	223.377	8,40
4. Transferentzia arruntak	6.623.731	337.959	6.961.690	6.364.856	91,43	5.661.114	703.742	11,06
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	296.176	221.117	517.293	512.282	99,03	266.343	245.939	48,01
6. Ondasunen besterentzea	1.192.798	0	1.192.798	1.800	0,15	1.800	0	0,00
7. Kapital-transferentziak	631.360	255.983	887.343	308.652	34,78	217.769	90.883	29,45
8. Finantza-aktiboak	30.000	1.335.013	1.365.013	12.499	0,92	12.499	0	0,00
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0		0	0	-
<b>Guztira</b>	<b>16.775.593</b>	<b>2.150.073</b>	<b>18.925.666</b>	<b>15.140.802</b>	<b>80,00</b>	<b>13.245.602</b>	<b>1.895.201</b>	<b>12,52</b>

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetako (%)	Ordainketak	Ordaintzeke dagoena	Ordaintzeke dagoena (%)
1. Langile-gastuak	8.482.095	96.574	8.578.669	8.144.538	94,94	8.013.251	131.287	1,61
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	4.920.683	397.099	5.317.782	4.482.148	84,29	3.566.379	915.769	20,43
3. Finantza-gastuak	155.505	-4.322	151.183	15.610	10,33	15.610	0	0,00
4. Transferentzia arruntak	1.363.151	214.266	1.577.417	1.441.155	91,36	1.102.643	338.512	23,49
6. Inbertsio errealak	0	1.552.056	1.552.056	371.762	23,95	354.227	17.536	4,72
7. Kapital-transferentziak	0	13.500	13.500	13.294	98,47	0	13.294	100,00
8. Finantza-aktiboak	0	15.000	15.000	8.500	56,67	8.500	0	0,00
9. Finantza-pasiboak	873.372	-134.100	739.272	355.526	48,09	323.773	31.753	8,93
<b>Guztira</b>	<b>15.794.807</b>	<b>2.150.073</b>	<b>17.944.880</b>	<b>14.832.533</b>	<b>82,66</b>	<b>13.384.383</b>	<b>1.448.151</b>	<b>9,76</b>

## V.2. 2014ko AURREKONTU BATERATUAREN EMAITZA

Kontzeptua	2013	2014
+ Aitortutako eskubideak	15.213.879	15.140.802
- Aitortutako betebeharrak	-15.904.218	-14.832.533
Aurrekontu-emaiza	-690.339	308.269
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-14.974	-138.434
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	137.803	0
+ Diruzaintza-gerakin likidoarekin finantzatutako gastuak	406.851	305.208
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	0
Aurrekontu-emaiza doitua	-160.659	475.043

## V.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2014ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2013	2014
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	5.201.254	5.173.468
(+ Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	1.477.089	1.895.201
(+ Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	1.955.639	1.708.981
(+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	3.319.636	3.154.820
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-1.551.110	-1.585.534
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.904.808	1.943.692
(+ Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.413.777	1.448.150
(+ Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	43.426	49.665
(+ Diru-sarreraren itzulketa	0	0
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	-29.492	-31.909
(+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	477.097	477.786
(+) Diruzaintzako funts likidoak	2.758.909	3.083.359
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	137.803	0,00 €
Diruzaintza-gerakina, guztira	6.193.158	6.313.134
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	9.604.511	9.396.402
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-3.411.353	-3.083.267

## V.4. 2014ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

(Udala gehi erakunde autonomoak gehi udal sozietatea)

## Jardunean

Deskribapena	2014	2013
<i>Ibilgetua</i>	103.722.066	103.950.129
Ibilgetu materiala	83.268.090	83.378.137
Ibilgetu ez-materiala	279.205	228.365
Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak	17.942.583	17.823.732
Herri-ondasunak	26.794	26.794
Finantza-ibilgetua	2.205.394	2.493.101
<i>Zirkulatzaila</i>	14.228.776	14.069.511
Zordunak	7.561.021	7.725.217
Finantza-kontuak	6.667.755	6.344.294
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>117.950.842</b>	<b>118.019.640</b>

## Pasiboa

Deskribapena	2014	2013
<i>Funts berekiak</i>	114.111.523	114.941.946
Ondarea eta erreserbak	88.326.647	88.724.863
Ekitaldiko emaitza ekonomikoak (etekinak)	276.763	937.987
Kapitaleko diru-laguntzak	25.505.113	25.279.095
<i>Arrisku eta gastuetarako hornidurak</i>	959.823	0
Hornidurak	959.823	0
<i>Epe luzeko hartzekodunak</i>	595.987	951.514
Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	595.987	951.514
<i>Epe laburreko hartzekodunak</i>	2.283.509	2.126.181
Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	1.982.704	1.809.368
Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	300.805	316.813
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>117.950.842</b>	<b>118.019.640</b>



## V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2014AN

## Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako izakinak	0	0
39 Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko hornikuntzak (ekitaldiko hornikuntza)	0	0	39 Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko hornikuntza (aurreko ekitaldiko hornikuntza)	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	2.243.801	2.271.671
61 Langile-gastuak	8.157.103	7.927.440	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	847.073	847.677
62 Finantza-gastuak	15.610	25.569	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	3.073.751	3.004.986
63 Tributuak	7.759	4.983	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	860.658	849.368
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	4.461.825	4.583.092	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
65 Gizarte prestazioak	0	0	76 Transferentzia arruntak	7.667.334	7.545.974
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	1.342.038	473.698
67 Transferentzia arruntak	2.743.634	2.635.269	78 Bestelako diru-sarrerak	80.151	108.320
68 Kapital-transferentziak	13.294	0	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
69 Amortizazioetarako eta horniduretarako hornidura, ekitaldikoa	0	0		0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	715.583	0	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	74.659
<b>Guztira</b>	<b>16.114.806</b>	<b>15.176.353</b>	<b>Guztira</b>	<b>16.114.806</b>	<b>15.176.353</b>

## Ekitaldiko emaitzak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)		74.659	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	715.583	
82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo zorduna)	0		82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	724.559
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0		83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	
84 Itxitako aurrekontuetako esku-bide eta betebeharren aldaketa	325.356		84 Itxitako aurrekontuetako esku-bide eta betebeharren aldaketa	0	
89 Etekin garbia guztira (saldo hartzekoduna)	390.227	649.900	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)		
<b>Guztira</b>	<b>715.583</b>	<b>724.559</b>	<b>Guztira</b>	<b>715.583</b>	<b>724.559</b>

- Udalaren eta patronatuen emaitza ..... 390.227 euro
- Udalaren Hirigintza Sozietatearen emaitza.....-113.464 euro.
- 2014ko emaitza bateratua, guztira .....276.763 euro

## VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTEEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- Alkatetzaren 2013ko abenduaren 31ko Ebazpenaren bidez 2014rako luzatu zen aurreko ekitaldiko aurrekontua, 2011ko irailaren 8ko osoko bilkuran onetsi zena.
- Burlatako Udalaren kontu orokorra 2015eko urriaren 1ean onetsi da.
- Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeko dago.
- Erakunde autonomoak beren estatutuaz daude araututa; estatutu horiek, ordea, eguneratzeko premia handia dute. Eguneratze horretan erakunde horien benetako autonomia-maila eta Udalak beren jardueraren inguruan dituen kontrol-mekanismoak zehaztu behar dira, besteak beste.
- Ez da aurkitu nabarmentzeko moduko zenbatekoa duen 2014ko fakturarik, 2015eko aurrekontuari egotzi zaionik.
- Egindako azterketatik ondorioztatzen da Udalak modu arrazoizkoan betetzen dituela hornitzaileei ordaintzeko epeak, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legean eta Merkataritza-eragiketetan Berankortasuna Eragozteko Neurriak ezarri zituen 15/2010 Legean ezarritakoak. Egiaztatu da, gainera, Udalak 2014an ez duela inolako zenbatekorik ordaindu arrazoi horrengatik berandutza-interesengatik.
- Udalak, 2014ko abenduaren 31n, 595.587 euroko epe luzeko zorra dauka. Azken maileguren muga-eguna 2018ko ekainaren 30ean da, eta amortizaziorako egutegia, berriz, honako hau da 2014ko abenduaren 31n:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2015	286.090	48,03	67,5
2016-2020	309.497	51,97	100
Guztira	595.587	100	

Hona gure gomendioak:

- *Urteko aurrekontua indarrean dauden legeetan ezarritako epeetan onetsi behar da, Udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzariarako tresna gisa erabili ahal izan dadin.*
- *IV.5 atalean, ondasunen inbentarioari buruz eta kontu orokorraren onespenerari buruz emandako gomendioak ezartzen amaitzea.*

### VI.2. LANGILEAK

Langileen gastua 8,1 milioi eurokoa da; hau da, 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 55 eta gastu arrunten ehuneko 58.

2013ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu honek ehuneko 2,76ko igoera izan du. Hona hemen aurreko ekitaldiarekiko konparazioa:

	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoa Aldea
	2013	2014	
Goi-karguak	261.148	291.821	11,75
Funtzionarioak	2.651.174	2.493.288	-5,96
Lan-kontratudun finkoak	902.188	912.688	1,16
Aldi baterako lan-kontratudunak	1.527.291	1.714.310	12,25
Gizarte-zamak	2.583.894	2.732.431	5,75
1. kapitulua, guztira	7.925.694	8.144.538	2,76

Luzatutako aurrekontuarekin batera, indarrean jarraitzen du Osoko Bilkurak 2011n onetsi zuen plantilla organikoak. Bertan 163 lanpostu daude jasota –horietatik 54 lanpostu bete gabe daude–, ondoko taula hauetan erakusten den bezala banatuta:

Kontzeptua	Lanpostuak
Funtzionarioak jardunean	88
Lan-kontratudun finkoak jardunean	21
<i>Honaino, guztira</i>	<i>109</i>
Hutsak	54
<b>Guztira</b>	<b>163</b>

54 lanpostu hutsetatik 32tan bitarteko langileak ari dira.

2014ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 211 pertsonak egiten zuten lan:

Langileak	Udala	Kirol Patronatua	Kultur Patronatua	Guztira
Aldi baterako langileak - Izen-dapen askea	2	-	-	2
Funtzionarioak	72	11	5	88
Lan-kontratudun finkoak	6	-	-	6
Aldi baterako lan-kontratudunak	90	25	-	115
<b>Guztira</b>	<b>170</b>	<b>36</b>	<b>5</b>	<b>211</b>

Nabarmentzekoa da Udalaren plantillan ugari direla aldi baterako kontratudunak.

Udaleko langileak, abenduaren 31n, arlo hauei atxikita daude:

Arloak	Kopurua
Administrazioa (Orokorra, Ekonomikoak eta Hirigintza)	27
Polizia	35
Gizarte Zerbitzuak	20
Gizarte sustapena (Hezkuntza-Gazteria, Euskara, Liburutegia eta Ludoteka)	7
Obrak eta zerbitzuak	47
Enplegua sustatzea	34
Kirol Patronatua	36
Kultur Patronatua	5
<b>Guztira</b>	<b>211</b>

Gastu horien lagin bat aztertuta ondorioztatzen da, oro har, ordaindutako ordainsariak egindako lanerako ezarritakoak direla, egindako atxikipenak zuzenak direla eta langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela. 2014ko ekitaldian soldata-igoerarik ez dela izan ikusi da orobat.

2014an amaitu ziren aldi baterako lanpostuak betetzeko deialdiak aztertuta, ondorioztat atera dugu modu egokian bete dela indarrean dagoen araudia.

2013ko txostenean aipatzen zen bezala, aurtengo abenduan hitzarmen kolektibo berri bat izenpetu zen. Hitzarmen hori 2014ko urtarrilaren 13an sartu zen Arriskuaren Prebentziorako eta Lanaren Zuzendaritza Nagusian, eta 2014ko uztailaren 4an zuzendu zen, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzazko Errege Dekretuan eta laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistroari eta gordailuari buruzko 703/2010 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraituz.

2014ko uztailaren 17ko NAO n argitaratu zen. Haren azken xedapenak honakoa dio: “*Akordio honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra eta, atzera eraginez, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorio ekonomikoak izanen ditu*”.

• *Gomendatzen dugu plantilla organikoa premia errealen arabera egokitzeko azterketa-prozesua osatzea.*

## VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 4,5 milioi euro egin dute 2014ko ekitaldian; guztira, ekitaldiko gastuen ehuneko 30 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 32 egiten dute. 2013. urtearen aldean, ehuneko 2,35 jaitsi da. Jaitsiera horren arrazoi nagusia da Udalak konponketen eta kontserbazioaren arloan egindako gastua ehuneko 27 beheratu duela.

Hona kontusailen araberako banaketa:

Kontzeptua	Kopurua
Errentamenduak	297.560
Aseguruak	72.453
Kanpoko zerbitzuak	1.700.754
Mantentze-lanak	1.022.679
Hornidurak	1.376.137
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	12.564
<b>Guztira</b>	<b>4.482.148</b>

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa, BEZarekin	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa, BEZarekin
Gazteleku kultur etxearen kudeaketa	Bertaratzea	Irekia, Europako mugaren azpitik	86.265,74	1	76.058,40
3. adinekoentzako programaren dinamizazioa	Bertaratzea	Irekia, Europako mugaren azpitik	27.152,40	4	25.010,70
Bideko hezkuntzarako parkeak	Bertaratzea	Publizitaterik gabe negoziatua	8.591,00	2	7.381,00
Podologia Zerbitzua	Bertaratzea	Irekia, Europako mugaren azpitik	7.000,00	1	7.000,00
Aisialdiaren programazioa, euskararen sustapena	Bertaratzea	Publizitaterik gabe negoziatua	8.833,00	3	8.651,50

Azterketa honetatik eta erregistratutako gastuen lagin bati buruz egindako azterketaren ondorioz, gastu horiek behar diren fakturekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den araudia zentzuz errespetatu dela egiaztatu da.

Ikusi dugu fidantzen zenbatekoak finkatzerakoan irizpide desberdinak aplikatzen direla. Hartara, batzuetan, lizitazio-balioaren gainean finkatu dira; beste batzuetan, esleipenaren balioaren gainean; eta kasuren batean BEZa ere sartu da. Halaber, ez dago jasota behin espedienteak amaituta bermeak itzuli izana.

Kultura patronatuko laguntza teknikorako eta horniduretarako kontratu batzuetan indarraldia amaitu da; horrenbestez, berriz lizitatu beharko lirarteke.

Gure gomendioak:

- *Urteko gastuaren bolumena alde aurretik balioets daitekeen kasuetan, behar diren kontratazio-espedienteak izapidetzea.*
- *Irizpide bera aplikatzea fidantzen zenbatekoa ezartzeko.*
- *Kontrata amaitua duten kontratazioak lizitatzea.*

## VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Izaera hau duten gastuek 1,4 milioi euro egiten dute; hau da, 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 9,72 eta gastu arrunten ehuneko 10,23.

Ondoren gastu horiek aurreko ekitaldiko gastuekin konparatuko dira:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2013	2014	2014/2013
Toki entitateei	268.688	266.676	-0,75
Mankomunitateei	343.804	374.236	8,85
Familiei	373.572	433.197	15,96
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	346.728	367.046	5,86
<b>Guztira</b>	<b>1.332.791</b>	<b>1.441.155</b>	<b>8,13</b>

2013ko ekitaldiarekin alderatuta, gastu hauek ehuneko 8 egin dute gora; bereziki egin dute gora familientzako transferentziek, ehuneko 16ko igoerarekin.

Toki entitateentzako transferentziak Hilarión Eslava Musika Eskolako transferentziei dagozkie.

Mankomunitateentzako transferentziak Iruñerriko Mankomunitateari egindako transferentziei dagozkie, eskualdeko garraioa eta ibai-parkea finantzatzeko.

Honakoak dira 2014an emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Kontzeptua	Kopurua
Eskola jantokia	275.625
Kirol elkarteak	164.194
Elkarteentzako diru-laguntzak	107.196
Nazioarteko lankidetzarako diru-laguntzak	69.096
Irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzak	61.332
Ikaskuntzarako laguntzak	29.949
Jaietarako, Eguberrietarako eta Inauterietarako diru-laguntzak	25.221

Kapitulu hau aztertzeke egin den lanean, egiaztatu dugu gastu hori justifikatuta dagoela eta zuzen kontabilizatu dela, arau indardunak egoki betez.

## VI.5. INBERTSIOAK

2014. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioak 1,6 milioi eurokoak ziren, eta haien ehuneko 24 bete da: 371.762 milioi; hau da, ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 2,51.

2014an esleitutako ondoko espedienteak aztertu dira:

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa, BEZarekin	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa, BEZarekin
Kale Nagusiko 26. zenbakiko eraikina eraistea	Obra	Negoziatua, European publizitaterik egin gabe	147.319,42	4	81.009,80
Kale Nagusiko 26. zenbakiko orubea urbanizatzea	Obra	Irekia	348.724,94	6	278.958,64
Ermitaberri ikastetxe publikoko leihoak ordeztzea	Obra	Negoziatua, European publizitaterik egin gabe	91.355,00	2	72.479,99

Egindako azterketaren arabera, egoki errespetatu da aplikatzekoa den araudia.

## VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2014ko ekitaldian aitortutako eskubideak 15,1 milioikoak izan dira; ehuneko 97,86 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerei dagozkie eta ehuneko 2,14, berriz, kapital-eragiketei.

Diru-sarrera arrunten artean tributuen bidezko diru-sarrerak (7,9 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (6,4 milioi eurokoak) nabarmentzen dira. Kapital-eragiketetan, Administrazio Orokorren transferentziak dira azpimarratzekoak (309 mila euro).

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 80koa izan da.

2013. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 0,48 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%)
	2013	2014	2014/2013
1. Zuzeneko zergak	3.938.636	4.862.072	23,45
2. Zeharkako zergak	389.416	420.688	8,03
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.687.765	2.657.954	-1,11
4. Transferentzia arruntak	6.243.496	6.364.856	1,94
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	856.715	512.282	-40,20
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	14.116.028	14.817.852	4,97
6. Inbertsioen besterentzea	964.000	1.800	-99,81
7. Kapital-transferentziak	122.216	308.652	152,55
8. Finantza-aktiboak	11.635	12.499	7,42
9. Finantza-pasiboak	0	0	
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6tik 9ra)	1.097.851	322.951	-70,58
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>15.213.879</b>	<b>15.140.802</b>	<b>-0,48</b>

Jaitsieraren arrazoia ondare bidezko diru-sarreraren kontusailak eta inbertsioen besterentzea dira.

Ondare bidezko diru-sarreraren kapituluaren kasuan, jaitsiera hori etxebizitzaren errentamenduaren bidezko diru-bilketan izandako beherakadari zor zaio.

Inbertsio errealen besterentzearen kapituluaren kasuan, beherakada horren arrazoia da 2013an Burlatako udalerriko E sektorean kokatutako hiri-finka baten permuta-eragiketa bat izan zela, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiko Cáritasek Kale Nagusiko 26. zenbakian zeukan higiezinaren truke.

Hurrengo taulan udal zerga bakoitzeko aitortu diren eskubideen bilakaera erakusten dugu:

Zergak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%)
	2014	2013	2014/2013
Lurraren kontribuzioa	2.318.014	2.299.129	0,82
Ibilgailuak	866.181	849.368	1,98
Lurren balio-gehikuntza	1.342.145	473.698	183,33
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	335.732	316.441	6,10
EIOZa	420.688	389.416	8,03
<b>Guztira</b>	<b>5.282.760</b>	<b>4.328.052</b>	<b>22,06</b>

Diru-sarreraren multzoak gora egin du, baina igoera horren funtsezko arrazoia da lursailen balio-gehikuntzaren gaineko zergaren diru-bilketak ehuneko 183 egin duela gora, batez ere Erripagañako berriki eraiki den eremuan egindako eskualdaketengatik.

Udalak aplikatzen dituen tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak agintzen dituen tasa ertain-altuen artean daude, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Zerga	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,286	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,7tik 3ra	2tik 3,8ra
Zerga-tasa	12	8 - 20 bitartean
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2-5

2014an lursailen balio-gehikuntzaren gaineko zergaren tasak aldatu ez badira ere, gaurkotzearen koefizientea ehuneko bitik ehuneko 3,4ra pasa da eta 2013an eta ehuneko 2,7tik ehuneko hirura 2014an. 2014ko ordenantza fiskalek ez dute lurraren kontribuzioa aldatu, ez eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga ere.

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten gainean egindako azterketatik ondorioztatu dugu, oro har, egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, nahiz eta, aurreko txostenetan adierazten genuen bezala, soilik egiazki kobratutako isunen aurrekontuari egozten zaizkion.

Gure gomendioak:

- *Diru-sarreraren aurrekontua, egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta, egiaz dauden aukeren arabera egitea.*
- *Isunak kudeatzeko prozedura osatzea, kobratzeko dauden isunen zenbatekoa ezagutu ahal izateko.*

## VI.7. HIRIGINTZA

Burlatako Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, "Hirigintza, Ingurumen, Obra eta Zerbitzuak" sailaren bitartez; sail horri honako langileak daude atxikita: arkitekto bat, aparejadore bat eta bi ofizial administrari.

Arlo honetan ez dago jasota kanpoko aholkularirik dagoenik, Ganasak enpresak ingurumen-alderdiei buruzko txosten puntualak egiten baditu ere. 2014an, Ganasak ez dizkio txosten horiek fakturatu Udalari.

Hirigintza kudeatzeko finkatutako prozedura batzuk badaude, eta egiaztatu egiten da arau indardunak egoki betetzen direla.

Burlatako Udalaren Antolamendu Plana 1991n onetsi zen. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta moldatzeko.

2005eko ekainean, Udaleko Osoko Bilkurak Lurraldearen Erabilerarako Estrategia eta Eredua (LEEE) onetsi zuen, eta Nafarroako Gobernuari igorri zion. Dena den, agiria alkateak berak erretiratu zuen 2006ko azaroan. Gero, Udaleko Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 31ko bilkuran, Lurraldearen Erabilerarako Estrategia eta Eredua (LEEE) berri bat onetsi zuen. Lurraldearen Antolamenduko Batzordeak onetsi zuen 2012ko martxoaren 30ean. Egun berean sinatu zen Udal Planaren berrikuspenerako aurretiatzko hitzarmena.

Burlatako Udaleko Osoko Bilkurak, 2014ko maiatzaren 29an, hasiera batez onetsi zuen udal plan orokorra eta ingurumen eraginaren azterlana, haren osagai gisa, eta jendaurrean jarri zituen 2014ko azaroaren 30era arte. Gaur egun, aurkeztutako alegazioei erantzutek fasean gaude.

2014. urtean zehar, hiru xehetasun-azterlan onetsi dira behin betiko, guztiak ere arkitektura oztipoak kentzeari buruzkoak:

Espedientea	Sustatzailea	Osoko Bilkuraren onespena	NAO
Livarios/2013/45	Basilio Armendariz kaleko 12. zenbakiko Jabeen Elkarte	2014/03/27	2014/04/10
Estdetalle/2014	Nogalera kaleko 14. zenbakiko Jabeen Elkarte	2014/04/29	2014/05/19
Estdetalle/2014	Jasokunde kaleko 1. zenbakiko Jabeen Elkarte	2014/06/26	2014/07/03

2014an, ez da behin betiko onetsi beste inongo hirigintza-tresnarik.

Hirigintza-lizentziak emateari dagokionez, 2014an 436 lizentzia eman dira.

Bestalde, egiaztatu dugu Udalaren barne-kudeaketarako eta -kontrolerako organoek ez dutela hirigintza-jardueraren gaineko ez jarraipenik ez ikuskaritarik egiten, ekipamendu-obrei eta etxebizitzaren sustapenari eta eraikuntzari dagokienez.

Azkenik, ikusi dugu udal ondarea besterentzetik lortutako baliabideak indarra duen araudian ezarritako helburuetarako erabili direla.

*Gomendatzen dugu Udalak diseinatzea eta aplikatzea Udalaren kapitaleko sozietateei, jarduera orotan, ezarri beharreko finantza- eta eraginkortasun-kontrolerako prozedura juridiko eta teknikoak.*

#### VI.8. BURLATAKO UDALAREN HIRIGINTZA SOZIETATEA, S.L.

2006ko otsailean, Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea SL sortu zen, 1,8 milioi euroko kapital sozialarekin eta 664.557 euroko jaulkipen-primarekin. Burlatako Udalak berak jarri zituen diru kopuru horiek osorik, diru horretan baloratutako lursail baten lagapenaren bitartez.

Sozietate horren xedea da Udalaren ekintzak eraginkorrak izatea hiriaren birgaitzea bultzatzeko, etxebizitzak eta beste eraikin batzuk sustatzeko, lurzorua urbanizatzeko, egoera txarrean dauden hiri-eremuak zaharberritzeko, eta, orobat, orube eraikigarrien eta horietan eraikitzen diren eraikinen salmentako eta errentamenduko prezioak murriztea.

Burlatako Udalak bi lursail-bloke laga zizkion dohainik Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateari, Erripagañako Udalez Gaindiko Plan Sektorialaren birzaitze-proiektuaren ondorioz, haiek hirigintzaren aldetik kudea zitzan eta etxebizitzaren sustapena egin zezan:

Etxebizitza-sustapenerako helburuak betetzeko, Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateak bi deialdi egin ditu lagapen horietako bakoitzerako, beste bazkide pribatu batekiko bitariko sozietateak eratzeko asmoz, etxebizitza babestuak sustatu eta eraikitzeko; horrek lurzatiak salmenta bidez besterentzea eskatzen zuen, gainera, inplizituki. Sozietate misto horiek dira "Ripaberri Desarrollo Urbano SL" –2008ko ekainean eratua– eta "Erripagaña Desarrollo Urbano SL" –2010eko martxoan eratua–.

Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateak bi sozietateetan duen partaidetza ehuneko 51koa da; bazkide pribatuak –bi sozietateetan bera da, Nasipa, SL–, berriz, gainontzeko ehuneko 49 dauka. Burlatako Udaleko Hirigintza Sozietateak ez du kontu bateraturik aurkeztu.

Gainera, Udalak munta handiko inbertsioak egitea enkargatu dio Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateari, nahiz eta azken horrek langile bakarra duen, eta, gainera, proiektu horien kontrola eta gainbegiratzea ere haren esku uzten du, bai eta haien etorkizuneko balizko ustiatze ekonomikoa ere. Hala eta guztiz ere, 2014an ez da beste enkargurik egin.

Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateak eginkizun berriak hartu ditu bere gain. Horri dagokionez, Burlatako Udalaren Osoko Bilkurak, 2014ko abenduaren 18an, honako erabaki hau hartu zuen:



*“a. Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea Burlatako Udalaren tresna izaerako ente gisa aitortzea..*

*b. Ezartzea ezen, estatutuen 3l. artikuluan ezarritako xedeen arabera, Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearen jarduketa-esparruaren zatia dela, udal etxebizitzaren kudeaketarako eta administraziorako tresna-izaerako ente gisa. Horrek honako jarduketa material hauek ekarri beharko lituzke berarekin:*

- Araudia egiteko lanak: ordenantza, baremoa... onespena emateko kasuko udal organoari aurkeztu beharrekoak.*
  - Sarbide-zerrendak sortzea; udal organo eskudunei igorri beharko zaizkie kontrolatu eta onets ditzaten.*
  - Herritarrari arreta eta informazioa ematea.*
  - Alokairu kontratuak idaztea (udal organo eskudunak sinatu beharko ditu), bai eta bisatuen izapideak ere.*
  - Fidantzen eta abalen gaineko kontrola. Kontu-hartzaitzari eta Udalari horien berri emanen zaie.*
  - Udalaren kontu korranteetan sartzekoak diren alokairuko ordainagirien kudeaketa materiala, Udalaren diruzaintza pean.*
  - Hornigaien alden, baje eta lagapenen gaineko kontrola.*
  - Etxebizitzaren ikuskatzea (Udalaren obra zerbitzuarekin koordinatuta).*
  - Erkidegoen administrazioa.*
  - Udal etxebizitzaren kudeaketatik heldu den beste edozein jarduketa.*
- c. Erabaki hau Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.*

Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea SLren urteko kontuak, 2014. urteari dagozkionak, kanpoko profesional batek ikuskatu zituen, eta bere aldeko iritzia eman zuen.

Haren ondare garbia 14,2 milioikoa zen 2014an, eta ez du epe luzeko zorrik. Maniobra-funtsa positiboa du, 4,67 milioi eurokoa.

2014an 456.233 euroko gastuak izan ditu, guztira; horietatik, 42.494 euro langile-gastuei dagozkie, 308.578 euro amortizazio-gastuei eta 220.190 euro bestelako gastuei. Diru-sarrerak 342.768 euro egin dute 2014an; horietatik, 239.683 euro (ehuneko 70) Burlatako Udaletik heldu dira; 182.742 euro, Udalari lokalak errentatsetatik heldu dira eta 57.121 euro, azkenik, Udalari errentan emandako lokalei dagozkien hornidura-fakturen ordainketetatik heldu dira; hori dela eta, Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateak haiek aurreratu eta gero Udalak ordaindu egin zizkion.

Ustiaketaren 2014ko emaitzak 133.640 euroko galerak ekarri ditu. Diru-sarrera eta gastuak finantzarioak gehitu ondoren, amaierako emaitza 113.464 euroko galera da. Ondare-kontuen kargura, 1,3 milioi kontabilizatu dira, urbanizazio-kuotak erregularizatzeari eta hornikuntzei dagozkienak.

Gure gomendioak:

- Sozietateak jarduteko plan bat egitea, zeren eta ustiaketaren emaitza negatiboa izan baita. Diru-sarrerak eta gastuak direla eta aurreikusten den bilakaerari erreparatuta, ez da aurreikusten epe laburrean joera-aldaketarik egonen denik.*
- Erripagaña Desarrollo Urbano SLren kontuak Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearen kontuekin bateratuta aurkeztea, zeren eta azken hori Erripagañaren akzioen ehuneko 51ren jabea baita.*

#### VI.9. RIPABERRI DESARROLLO URBANO SL. (DESEGITEN ARI DA).

Kapital soziala 3.100 eurokoa da. 3.100 partaidetza ditu, honela banatuta daudenak:

- 1.581 partaidetza Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearen jabetzakoak dira: kapital sozialaren ehuneko 51 dira.
- 1.519 partaidetza Nasipa SLrenak dira: kapital sozialaren ehuneko 49 dira.

Sozietatearen xede soziala da Burlatako udalerrian higiezinak erosi, saldu, administratu, ustiatu, aprobetxatu eta erabiltzea, dela zuzenean, dela errentamendu bidez edo zuzenbidean balioduna den beste edozein moduz, edozein dela ere haien zertarako edo erabilera. Obrak norberaren edo besteren kontura egitea; higiezin-izaerako gisa guztietako eragiketak egitea. Gisa guztietako orube, lursail eta finkak erosi, saldu, alokatu, zatitu eta urbanizatzea, eta haietan eraikinak egin eta besterentzea, guztiz, partzialki nahiz jabetza horizontaleko araubidean.

Bereziki, sozietateak jarduera nagusi gisa du Burlatako udalerrian etxebizitzak sustatu eta eraikitzea, Erripagañako udalez gaindiko plan sektorialaren esparruan (B.2.1 lursailetik B.2.4 lursailera).

Ripaberri Desarrollo Urbano, SLk babes ofizialeko 48 etxebizitza eta prezio tasatuko 158 etxebizitza eraiki ditu. Guztiak, 13 izan ezik, 2011n egin dira, eta 2,12 milioi euroko emaitza lortu dute. Nafarroako kontratazio atariak, 2008ko azaroan, haien lizitazio-iragarkia argitaratu zuen, 20 milioi euroko aurrekontuarekin (BEZa kenduta); Ripaberriren bazkide pribatua (Nasipa SL) kontratuaren esleipen-hartzaile suertatu zen 2009an, 19,98 milioi euroko zenbatekoarekin (BEZa kenduta). Aurkeztutako eskaintza bakarra izan zen.

2014an, 35.655 euroko ondare garbi negatiboa dauka; 2013an, berriz, 104.839 euroko ondare garbi positiboa zeukan. 2014an 571.880 euroko gastuak izan ditu, guztira; horietatik, 405.611 euro 2014an saldutako etxebizitzaren izakinetan gertatutako bajari dagozkio. Sozietateak ez du langilerik; haren kudeaketaz bazkide pribatu bat arduratzen da.

Haren diru-sarrerak 431.386 eurokoak dira. Horietatik, 430.783 euro etxebizitzaren salmentatik etorri dira.

2014ko ekitaldiaren emaitzak 140.494 euroko galerak eman ditu; 2013an, berriz, 105.464 euroko galerak izan ditu. Ustiakearen emaitza negatiboa da: 115.120 euroko galerak eman ditu; 2013an, berriz, 73.003 euroko galerak izan zituen.

Sozietate hori, zeinaren kontuak enpresa pribatu batek kudeatu baititu, desegiten ari da.

#### VI.10. ERRIPAGAÑA DESARROLLO URBANO, S.L.

2010eko martxoaren 18an, Erripagaña Desarrollo Urbano SL sozietatea eratu zen.

Kapital soziala 3.100 eurokoa da. 3.100 partaidetza ditu, honela banatuta daudenak:

- 1.581 partaidetza Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearen jabetzakoak dira: kapital sozialaren ehuneko 51 dira.
- 1.519 partaidetza Nasipa SLrenak dira: kapital sozialaren ehuneko 49 dira.

Sozietate-xedea, besteak beste, edozein izaeratako orubeak, lursailak eta finkak erosi, saldu, administratu eta urbanizatzea da, eta batez ere, Burlatako udalerrian etxebizitzak sustatu eta eraikitzea, Erripagañako udalez gaindiko plan sektorialaren esparruan.

Erripagaña Desarrollo Urbano, S.L. hasia zen babes ofizialeko 267 etxebizitza eraikitzen. Horretarako, Nafarroako kontratazio atariak, 2010eko uztailaren 8an, haiek eraikitzeko obren lizitazio-iragarkia argitaratu zuen, 23,86 milioi euroko aurrekontuarekin (BEZa kenduta); prozesu horretara hiru eskaintza aurkeztu ziren, eta Nasipa SL sozietatearen bazkide pribatua gertatu zen esleipen-hartzaile. Esleipenaren zenbatekoa 19,08 milioi eurokoa da, ehuneko 37ko bajarekin.

Erripagaña sozietatearen 2014ko urteko kontuak, kanpoko auditoreek egindako auditoria finantzarioko txosten batean aztertu ziren, eta iritzian honako salbuespena jaso da: "Sozietateak 2014ko ekitaldiaren itxieran bere produktu amaituak baloratu ditu, eta 172.360 euroko andeatzea aplikatu du;

horrek izakinen amaierako zenbatekoaren ehuneko 15eko andeatzea egiten du. Sozietateak ez du baliabiderik izakinen andeatzea objektiboki baloratzeko; hori dela eta, ezin izan dut egiaztatu erantsitako egoera-balantzean haiei esleitutako balorazioaren arrazoizkotasuna, ez eta erantsitako galeren eta irabazien kontuan erregistratutako produktu amaituen izakinen gutxitzean izan duen eragina ere".

Horri dagokionez, gogoratu beharra dago 2013ko ekitaldiko kontuetako Erripagañako kontuen auditoria-txostenean salbuespen bat zegoen izakinen kontusail berari buruz; orduko andeatzea, ordea, 512.088 eurokoa zen.

Erripagaña Desarrollo Urbano SLk 309.200 euroko etekinak eman ditu 2014an –2013an, 86.815 eurokoak eman zituen–. 2014ko ustiaketa-emaizta 516.572 euro positiboa da –2013an, 254.947 euro positiboa izan zen–.

Erripagaña Desarrollo Urbano SLk 2014an 399.735 euroko ondare garbia dauka –2013an 90.535 eurokoa zuen–; 482.929 euroko epe luzeko zorra –2013an 2.806.888 eurokoa zuen; eta maniobra funts negatibo positiboa dauka, 83.025 eurokoa.

2014an 2.031.558 euroko gastuak izan ditu, guztira; horietatik, 1.925.128 euro 2014an saldutako etxebizitzaren izakinetan gertatutako bajari dagozkie. Sozietateak ez du langilerik; haren kudeaketaz bazkide pribatu bat arduratzen da.

Haren 2014ko diru-sarrerak 2.549.307 eurokoak izan dira. Horietatik, 2.547.476 euro etxebizitzaren salmentari dagozkie.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko martxoaren 8an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

